

**GORENAREN ERABAKIA.** Epaiak berretsi du lanak ezin direla aurrera atera, talde ekologistaren abokatuen arabera

# Koordinakundeak gogoratu du urtegia ez dela bete «debekatuta dagoelako»

Greenpeacek dio proiektua «legez kanpoko eta segurtasun gutxikoa» dela, eta ur kudeaketa zentzugabearen erakusgarri

Alberto Barandiaran | IRUÑEA

Espainiako Auzitegi Nazionalak eta Auzitegi Gorenak 1996tik hona Itoitzen gainean emandako epai guztiak indarrean daude, eta, beraz, Itoizko proiektua, egun, legez kanpoko da. Hori da, Itoizko Koordinakundeko abokatuentzat, urtegiaren proiektuaren gainean atera den azken erabakiaren ondorioa.

«Itoitz ez bada bete, ez da izan administrazioek ez dutelako nahi izan», dio Maria Jose Beaumont koordinakundeko abokatuak, «debekatuta dagoelako baizik».

Beraz, 1996. urtean Auzitegi Gorenak onartu zituen neurriak ditu egun proiektuak: 9,7 Hm3ko urtegi txikia —418 Hm3 jatorrizko proiektuan—.

Ebroko Ur Konfederazioak eta Nafarroako Gobernuak, baita Ingurumen ministroak ere, data jarri diote behin eta berriro urtegiaren betetzeari, eta behin eta berriro atzeratu behar izan dute, arrazoi argirik eman gabe.

## Gorenak epai bera berresten duen hirugarren aldia

Asteburu honetan jakindako beste erabakiak, praktikan, ez du aldatzen egoera. Auzitegi Nazionalak eman behar du baimena lanetan segitzeko edo gelditzeko, baina berretsi egin ditu, Beaumontek atzo adierazi zuenez, proiektuaren gaineko zalantzak.

Hau da Auzitegi Gorenak iritzi bera berresten duen hirugarren aldia. 1997an erabaki zuen Itoizko proiektua bertan behera utzi behar zela, babestu beharreko naturguneak urez beteko zituelako, eta beste horrenbeste egin zuen 2000ko apirilean. Orain, errefusatu egin ditu Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Ingurumen ministroaren helegiteak, urtegia urez betetzen hasteko.

Epaiak badu garrantzia. Hasteko, ez du aintzat hartzen Auzitegi Konstituzionalak hartutako erabakia, Naturguneen Legearen aldaketa onetsi zuen hura.

Erabaki horrek arnasa eman zion proiektuari, balekotzat jotzen zuen legeari esker Itoitzek ja ez zuelako naturgunerik urez beteteko, eta bultzatzaileek ondorioztatu zuten horrela proiektu-



## 'Itoitz salba dezagun', Diputazioaren Jauregiaren aitzinaldean

Greenpeace talde ekologistak ekintza ikusgarria egin zuen herenegun gauean Iruñean, Diputazioko Jauregiaren aitzinaldean. Proiektore handi batzuen laguntzaz, hainbat ekintzailek Itoizko proiektuaren aurka irudi eta leloak marraztu zituzten, talde ekologistak Espainiako Egitasmo Hidrolo-

gikoaren aurka daraman kanpainaren barruan. Albert Rodriguez kanpainaren arduraduna Itoizko Koordinakundeko kideekin batera agertu zen atzo prentsaurrekoan, Iruñean, eta Itoitz eta Egitasmo Hidrologikoa bat direla adierazi zuen. Itoitzek ez ezik Ebroko arroan egin behar diren beste urte-

giek ere izango duten eragin handia salatzeaz gain, Rodriguezek nabarmendu zuen politikoki ezarri nahi den proiektua dela Itoizkoa, eta, ondare ekologikoa ez ezik, kultur ondarea eta ondare naturala ere kaltetuak izan litezkeela. «Bertan behera utzi behar da, legaltasun eta segurtasunarengatik».

### ERREAKZIOAK

## Gobernuaren ustez, urtegia «legezkoa» da

Nafarroako Gobernuaren ustez, Itoizko proiektua legezkoa da, eta epaileek laster emango diete arrazoia, gainera. Jose Ignacio Palacios herenegun esan bezala, Nuria Iturriagaitia Gobernuko eledunak garrantzia kendu nahi izan zion Gorenaren erabakiari, eta «beste interpretaziorik» egiten zuena «epaia faltsutzen» ari zela esan zuen. «Nafarroako Gobernuak uste du Itoizko urtegia legezkoa dela, edonondik begiratuta ere, eta konfiantza osoa du Auzitegi Konstituzionalarekin eta Auzitegi Nazionalarekin, eta garbi dauka azkenean prozedura guztiak argia ikusiko duela». Iturriagaitia interpretatu zuen, gainera, Auzitegi

Gorenak emandako epaia ez dela, «inola ere», traba izango debekua azkenean ken dadin. «Gorenak berak, bere erabakian tarteko erabakia hartu du, bertan esaten delako ez dela behin betikoa, eta ez delako, inola ere, traba izango azkenean Auzitegi Nazionalak debekua ken dezan», azaldu zuen Iturriagaitia. Itoizko proiektuaren beharra aldarrikatzeko ere aprobetxatu zuen, eta etorkizunerako apustua zela nabarmendu zuen. «Nafarroako Gobernuak garbi du Itoitzekin konponduko dela gure ondorengoek urarekin izan lezaketan arazoa, eta hori da bai Itoitzek bai Nafarroako ubideak duten esanahi bakarra», esan zuen. «Ez dut inolako dudarik Koordinakundeak planteatu duen mordoil juridiko hau azkenean konponduko dela, eta Europako Batzordearen aurreko kexu artxibatu zen bezala, honek ere aurrera egingo duela».

tua aurrera atera zitekeela. Gerostik bi urteko geldiduna izan da, ordea, bultzatzaileek ez baitute afera desblokeatzeko beharrezko zen eskaerarik egin Madrilan.

## Gobernuak otsailean eskatu zuen debekua kentzeko

Behin Konstituzionalak Naturguneen Legea balekotzat jota, Nafarroako Gobernuak edo Ingurumen Ministerioak eskatu behar izan zioten Auzitegi Nazionalari oraindik indarrean zegoen urtegia urez betetzen hasteko debekua kentzeko, baina aurtengo otsailera arte ez dute horrelakorik egin.

Jose Ignacio Palacios Nafarroako Herri Lanetako kontseilariak, hain zuzen ere, erabaki